

## **BIBLIOGRAFIA Y DOCUMENTACIÓN**

## 1. LIBURU - FITXAK

Ondoren, fitxen fidez ikasturtean zehar mintegiaren garapenean irakurri diren liburuen aurkezten dira. Fitxa hauetan liburuei dagozkien datu funtsezkoenekin batera (hau da, egilea, urtea, izenburuz, argitaletxea, etab.), laburpena, zenbait adierazpen, hezkuntzarekin izan dezakeen lotura eta, sarritan, galdera batzuk horien inguruan debatea sustatzeko.

Beraz, atal honetan eskaintzen diren liburuen fitxek ez dute soilik ikuspegi informatiboa jorratzen, gainera eztabaida intelektuala ere bultzatu nahi baita.

### LIBURUAREN DATUAK

**AUSTIN, J. L. (1962), *Cómo hacer cosas con palabras*, Barcelona, Paidós, 1996.**

### LIBURUAREN LABURPENA

Hitzaurre interesgarri baten ondoren, autorearen 12 hitzaldien bilketa dator bere pentsamenduekin.

Hitzaurrea (G:C: CARRIO, E.A. RABOSSE): hitzaldietan agertzen den filosofia laburu eta komentatu egiten da atal honetan: hizkuntza arruntaren aburua, filosofo batzuen hizkera zaila (behar ez denean), “gezuraren hizkuntza” edo hausnarketaren hizkuntza, lan kooperatiboaren hizkuntza (Wittgenstein)..., eta Austinen espresio performatiboak (akzioa) espresio deskriptiboen aurrean. Hemen azaltzen dira ekintza lokuzionarioa (esan zerbait soinu batzuk egiten...), ilokuzionarioa (esaterakoan sortzen den ekintza: bataiatu, mehatxatu, iraindu...) eta perlokuzionarioa (egiten den ekintza hitz egiten dugulako: konbentzitu, harritu, beldurtu...).

Hasierako hitzaldietan “ekintza perlokuzionarioa” saiatzen da deskribitzen: ez da enuntziatu bat, ez da egia/gezurra baizik eta asmatu ala huts egiten du, etab. Saiatzen da perlokuzionario hori definitzen gramatikaren bidez baina adierazten du ezin dela, ikusi behar da mezua bere testuingurua, bere erabileran.

### LIBURUAREN INGURUKO KOMENTARIOAK (eztabaidak, atera diren ideei nagusiak...)

Liburu hau irakurketaren zergatiarekin abiatzen da bilera, zalantza hau, ordea, saioan zehar joango da desagertzen. Austin gaur egungo hizkuntza teorietan izugarriko eragina izan du: gaitasun komunikatiboan, pragmatikan, “hizkuntzaren erabilera” bezalako kontzeptuetan, etab. Egun termino hauek arruntak iruditzen zaizkigu baina autore honekin batera hasi ziren erabiltzen.

Bestalde, Austinen ustez, hizkuntza komunikaziorako erabiltzen da batez ere; Foucault filosofoak, ordea, hizkuntza “boterea” dela dio, oso ikuspuntu desberdina da.

Begirada atzera botatzen da ere beste autore batzuekin konparatzeko, batez ere Habermas eta Searle, paralelismo batzuk aurkitzen dira (ekintza ilokuzioarioarena, adibidez), azkeneko hauek komunikazioaren testuinguruak zabaldu bazituzten ere.

Komunikazioak ikerketa asko behar izaten du askotan, autoreak egiten duen bezala, baina baita beste testuinguru arruntenak, hau da, ohiko elkarrizketetan, adibidez. Hortik ondorio oso interesgarriak atera daitezke batzuentzako; beste batzuek galdetzen dute zertarako balioko zuen horrelako ikerketa. Jartzen dira adibide batzuk erakusteko nola hitzen azpian esanahi asko aurki daitezke, testuingurua kontutan harturik, jakina. Ideia hau ilustratzeko ipintzen dira adibide batzuk: haur batek, esate baterako, adierazten du ez duela nahi eskolara joan: zer esaten ari da benetan?; nola aztertzen diren hitzak epaiketetan egia aurkitzeko (“ez ezetza da”), etab. Halere, izan ditzakegu irizpide batzuk edo hipotesiak elkarrizketak aztertzerakoan? Ez al da oso zaila igartzea zer esan nahi da? Ez da ahaztu behar, dena den, batzuetan komunikazioa “zuzena” ematen dela, hau da, esaten dela esan nahi dena (Habermasek “hitz egite ideala” deituko zion honi). Hitz egiten da ere hitza-akzioaren arteko harremanetaz, hitzaren erabileraz (horien artean, boterea ezartzeko).

Aipatzen diren gaiarekin lotuta dauden beste autoreak: Van Dijk, Lomas, Tusón, Chomsky.

## HEZKUNTZARAKO ONDORIOAK

Ez da gehiegi sakondu gaia honetan zaila dela eta. Aipatzen da analizatu egin beharko zirela eskolan ematen diren komunikazioak: gurasoekin, lankideekin, ikasleekin..., harremanak hobetzeko asmotan eta ikastetxearen funtzionamendua aurrera eramateko asmoz.

## GALDERAK EZTABAIDAK BULTZATZEKO

- Zein garrantzia dauka, hizkuntzaren ikasketetan eta orokorrean, “erabilera” kontzeptuan?
- Zer dakigu espresio hauetaz: komunikazioa, gaitasun komunikatiboa, erabilera, hausnarketa, pragmatika, “acto de habla”?
- Zer atera daiteke elkarrizketa bat ikertzen? Zertarako balio daiteke?
- Zertarako erabiltzen dugu “hitza”? (Komunikatzeko, boterea erabiltzeko...)
- Nola aztertu daiteke eskolan erabiltzen den hizkuntza? Egin al daiteke “estilo” liburu bat eskolako pertsonen artean hitz egiteko? Erabili daiteke hizkuntza gauzak hobetzeko?
- Ikusi al duzu inoiz hizkuntzaren erabilpen desegokia gelan bertan (ikasleen artean, irakaslearekin...)? Nola hartu duzu? Zer egin egoera horiek hobetzeko?

## LIBURUAREN DATUAK

**FOUCAULT, M. (1975), Vigilar y castigar, Madrid, Siglo XXI, 2000.**

## LIBURUAREN LABURPENA

Liburuan historian zehar zaintza eta gaztiguari buruz hitz egiten da, batez ere XVIII mendetik aurrera, eta zein izan daitezkeen gaur egun izan daitezkeen eragina: kartzeletan, hezkuntzan, eroetxeetan, etab.

Hauexek dira liburaren atalak:

1. Suplicio.
2. Castigo.
3. Disciplina.
4. Prisión.

Arreta berezia ipini da “Disciplina” atalean.

## LIBURUAREN INGURUKO KOMENTARIOAK (eztabaidak, atara diren ideei nagusiak...)

Gainetik komentatzen dira irakurketaren gaineko atal aspektu batzuk: nola aztertzen den boterearen tresnak mendeen zehar (XVI; XVII eta XVIII) eta esaten da, nahiz eta gaur egun eragina jaso hango filosofiatik, gauzak asko aldatu egin direla, eboluzioa eman dela. Liburuan Ilustrazioa kritikatzeko da eman barik beste aukerarik.

Ondoren eztabaida boterean zentratzen da; batzuek irakurtzen dute autorearentzat dena dela boterea; beste batzuek ordea, gauza askotan boterea dagoela interpretatzen dute. Lehengo haria hartuta, nazismoraino iristen da eta esaten da bere liburuetan autoreak ez duela iraultza aldarrikatzen, bakarrik edozein boterearen kontra egitea, arauen kontra.

Esaten da legeak beharrezkoak direla eta askotan ahula defendatzeko balio dutela, nahiz eta lege asko gaizki eginak egon edo ez balio izan ezertarako.

Bukatzeko, autorearen ibilbide teoriko eta pertsonalaren aztertzen da eta aipatzen dira haren maisuak (grekoak, Kant, Nietzsche, Heidegger...). Honengatik batzuek ateratzen dute bere obra faxista dela eta bertan behera uzten da eztabaida.

## HEZKUNTZARAKO ONDORIOAK

Hezkuntzan eman den ibilbidea komentatzen da, autoreak historian zehar deskribatzen duena eta egon diren eta dauden beste ereduak. Gero hezkuntzari begira, araudiaren asuntoa komentatzen da.

## GALDERAK EZTABAIDAK BULTZATZEKO

1. Zein arau mota behar da eskolan?
2. Zertarako izango da baliagarria?
3. Araudi barruan, gaztiguak sartu beharko ziren? Zer nolakoak?
4. Zaindu behar da eskolan? Nola? Zertarako? Nola erabiltzen da boterea eskolan? Positiboa da? Beharrezkoa?

## AUTOREARI LOTUTAKO BESTE TESTUAK:

FOUCAULT, M., Gizakiaren heriotzaz, Donostia, Jakin, 1998.

FOUCAULT, M., Las palabras y las cosas, Madrid...

FOUCAULT, M., Historia de la sexualidad,...

FOUCAULT, M., Historia de la locura,...

V.V.A.A., , Michel Foucault: du monde entier, Paris, 1984.

...

## LIBURUAREN DATUAK

**TOURAINÉ, Alain (1997): *¿Podemos vivir juntos? Iguales y diferentes*. PPC argit. Madril. 445 or.**

## LIBURUAREN LABURPENA ETA HONEN INGURUKO KOMENTARIOAK (eztabaidak, atera diren ideiak...)

Touraine oso soziologo ospetsua da nazioarte mailan. Liburu honetan gaurko gizartea ezagutzen ari den globalizazio prozesuaren ikuspegitik analizatzen du nola egituratzen den gizarte bera eta, batez ere, gogoeta sakona planteiatzen du nola bizi daitezkeen elkarrekin pertsona desberdinak. Analisi honetarako kontuan hartzen du, alde batetik, lehenengo gizarte kapitalistetan (XIX eta XX. mendeetan zehar garatu direnak) zeintzuk arazoak eta konponbideak gertatu ziren. Berak dio iraganen arrazionalismoak, gizarte burjesak sortu zituenak, eratu zuen gizarte-mota errepublikarraren oinarriak herri baten bizi ziren guztiak hiritarrak izatean zetzan. Beraz, hiritar moduan eskubideak zituzten, gizarte demokratikoa bermatzen zuena eta elkarbizitza arautzen zuena. Bizitza pribaturako geratzen ziren bakoitzak zituen ezaugarri pertsonalak zein taldekoak. Gizarte honen ereduak zen jatorrizko kulturak adierazten zuena (Frantziar Frantziarena, alegia), eta kanpotik zetozenak kultura honetan integratu behar ziren. Nolabait Estatuaren helburua gizartea osoari hezurdura ematea zen.

Gizarte aurrekapitalistatik edo Europako kanpotik egon direnak ezaugarri horietan oinarritzen ziren. Modernitateak irrazionaltzat hartzen zituen, identitatearekin erlazionatzen zituen.

Egun, globalizazioaren eskutik *masetako kulturaren desozializazioa* gertatzen ari da. Gure kulturak ez du zuzentzen gizarte antolamendua, eta gizarte antolamendu honek jadanik ez du zuzentzen ekintza teknikoa ezta ekonomikoa ere ez. Gizarte modernoek aztarnetatik eta beraien erakundeetatik sortu dira, alde batetik, ekoizpen, kontsumo eta komunikaziorako sare globalak eta, bestetik, komunitatera itzultzea. Azken gertakizun hori dela medio, *elkarketa identitarioak* indartu egin dira. Tourainen ustez, komunitateek beti kutsu autoritarioa badute, baina baztertuak daudenek edo geratzeko arriskua sentitzen dutenek komunitatea berreskuratu nahi dute.

Globalizazioak ekarri digun beste ezaugarria da orain informazio gehiago dugula. Hedabideek gure bizitzan leku handiagoa betetzen dute, baina elkarrekin bizi izan arren, aldenduak gaude eta denbora pasatzen den ahala inkomunikatuak. Gizarte harremanak ahultzen dira eta honen aurrean zenbait erantzun daude (hirurak ahulak ere, Tourainen ustetan), zera:

- Ahulenak, iraganeko gizarte erduak berpiztu nahi duela.
- Kontrakoak, postmodernismoak, ebaketa onartzen du, azeleratu egin nahi du eta askapen bezala bizi du, beheraldi politikoa onartzen du eta merkatuak bizitza osoa erregulatzea ontzat hartzen du.

- Hirugarren erantzuna da Habermasek proposatzen duen konstituzioko abertzaletasuna. Erantzun minimalista da: elkarbizitza babesten du, baina ez du komunikaziorik ziurtatzen.

Gure begien aurrean orain arte proiektu politiko batek, erakunde batzuek eta sozializazio agentzia batzuek eraiki eta zuzendu duten gizartearen irudia deskonposatzen ari da. Estatu berak ahuldu egin da ekonomiaren internalizazioak eta kultur identitatearen zatiketak eraginda. Aldi berean lehenengo estatu errepublikarra gaurko gizarte errealitatek urrun dago. Ordenaren aldia amaitu egin da, aldaketaren aldia da orainoa (Ulrich Beck, *Arriskuaren gizartea*).

Liburuak ideia nagusi bi adierazten ditu:

1. “*Desmodernizazioa*”. Instrumentalitatea eta identitatearen, tekniko eta sinbolikoaren arteko konbinazio bakarra *bizitza pertsonalaren proiektuan* dago. Askatasunaren baieztapena da estrategien eta beraien baliabideen boterearen aurreko eta komunitateen diktadoreen kontrako. *Subjetua*<sup>1</sup> da.
2. Gizartezkoa ez den printzipio honen gainean gizartezko bizitza berreraiki behar dugu.

Eta liburuak une bi bereizten ditu:

1. Gizabanakoa *Subjetu* bihurtzea bakarrik egin daiteke *Bestea* ezagutzen bada: kultura askotako gizartean.
2. *Subjetua* eta *subjetuen arteko komunikazioak* erakundearen babes behar du. Demokraziaren kontzeptio zaharra ordezkatzeko du erakundearen ideia modernoarekin, zein *Subjetuaren* askatasunaren zerbitzura baitago. Hezkuntzari dagokionez, Tourainek *Subjetuaren eskola* aipatzen du.

Aurkezten dituen hausnarketen artean, ondoko hauek goraipatuko genituzke:

Gizarte globalizatuaren ezaugarriak.

Berak dio batzuek globalizazioan elkartruke ekonomikoen muldializazioa ikusi baino ez dutela dutela; baina, horrez gain, bitartekaritza sozial eta politikoen krisialdia eta hondatzea ere ekarri du. Lehen baino gehiago gizabanakoa definitzen da merkatua duen pozioagatik.

Liberalismoa inposatu da (Estatuaren ahultzeak esku-hartzeko mekanismoak ekarri ditu) eta aldaketak ordena ordezkatu du. Baina, Tourainen ustez, ez da egia munduko ekonomia zuzen-zuzenean Estatu Batuetako edo banku erraldoien interesen menpean egongo denik. Orain ezin da identifikatu gizarte-klase meneratzaile bat.

Bestaldetik, antiliberalismoak neokomunitarismo faszistizanteetara (ertain klaseko interesen defentsan, integrismoak, kultur nazionalismoak...) eraman

<sup>1</sup> *Subjetua* identitate pertsonalaren eta kultura partikular baten konbinazioaren emaitza da.

dezakegunaz ohartzen gaitu.

### **Komunitatezko identitatea**

Ekonomia eta kulturen arteko disoziazioak eragiten du pertsonak definitzen direla ez egiten dutenagatik, euren izateagatik baizik (duten erlijioa, arraza, generoa, nazionalitatea). Kultura globalak garaile izateak sor dezake sozialak ez diren identitateen berreraiketa. Hala ere –dio Tourainek-, Gizarte arrazionalak aniztasuna kulturalaren gaintetik kokatzen duen gizartearen eta historiaren irudikapena suntsitu edo baztertu behar dugu. Gizarte industrialean aniztasun kultural hori lotzen zen tradizio, sinesmen eta tokiz-tokiko antolatzeke era partikularrekin.

Orain, aldiz, lehengo ikuspegi arrazional hori aldatzeko era eta ibilbideen ugaritasunarekin ordezkatu behar dugu. Iragana mobilizatu behar dugu etorkizuna sorterazteko. Etorkizun honetan zaharra eta berriaren nahasketa egin behar dugu, eta arrazionaltasuna gizabanakoen zein taldekoen identitateen ezagutzearen zerbitzuan kokatu behar da. Tourainek erdu gisa emakumezkoen errebindikazioak aipatzen ditu.

Hala ere, arriskuak badaude. Globalizazioa dela eta sortzen duen desmodernizazioaren aurrean *atzerabegirako utopiak* sortzen ari dira. Atzera itzultzea ezinezkoa den legez, mugimendu atzerakoi batzuk jatorrizkoen mitoaz baliatzen dira jendea mobilizatzeko. Horrela, modernizazioaren ikuspegi nazionalista eta kulturalista inposatu nahi dute, ia beti era autoritarioak erabiliz.

Gainera, desmodernizazioak eta liberalismoaren garaipenak desintituzionalizazioa dakar. Tourainek adierazten du ahultzen diren erakundearen artean eskola dagoela. Honek dio, erakunden beherakadak eragin positiboak dituela, baina kontu handiz ibili behar gara ia iragana deskonposatzen den etorkizuna eraiki barik.

Desintituzionalizazioaren eskutik desozializazioa dator, hau da, rolen, arauen eta baloreen desagertzea. Hezkuntzak ezin du produkzio moduak behar dituen arauak igorri.

Tourainek proposatzen du modernitate berri bat eraikitzea eta nostalgiak alde batera uztea.

### **Subjetua**

Gaurko desmodernizazioan Subjetua bere dimentsio unibertsalistan hiltzen uzteko tentazioa badago. Eta prozesu honetan urraketa pertsonala eta identitatearen galera suertatzen ari da. Horregatik *berreraiketa pertsonala* ezinbestekoa da, bi askatzeren bidez:

1. Komunitatetik askatzea: Komunitatearen kontrolak kultura atzilotzen duenean, gizabanakoa lege, ohitura... sakralizatuen menpe bizi da. Orduan Subjetu pertsonala sor daiteke lar zehatzak diren komunitateetatik askatzen bada, horietan inposatzen den identitatea betebeharreran eta izatean oinarritzen da eskubideetan eta askatasunean baino.
2. Merkatuen indarretik askatzea.

Zailtasunik handiena daukagu berreraiketa hori bultzatzen duten indarrak identifikatzeko.

Eta, nolakoa da Subjetu hori? Subjetuaren ideia ezinbestekoa da kulturarteko komunikazioren eta demokraziaren baldintzak aurkitu nahi badugu. Ikuspegi honetatik esangura politikoa hartzen du Subjetibizazioak.

Foucaultek adierazten duen arabera, ezin da nahastu Subjetua gizarte pertsonaiekin, hau da, eskubideen eta betebeharren kontzientea, hiritarra eta langilea denarekin.

Gizarte industrialean subjeto politikoa topatu nahi zen. Horrela, langileen mugimenduak gizarte klase batean aurkitu nahi izan zuen, baina denbora hori pasatu egin da. Orain, aldiz, giza mugimenduek lehen baino askoz gutxiago eskatzen dute gizarte berri bat eta justizia errebendikatzen dute (askatasuna, segurtasuna, duintasun pertsonala...). Bakoitzean giza mugimenduak kudeatzaile bihurtu dira.

## LIBURUAREN DATUAK

**FOUCOULT, Michel (1984): *Las palabras y las cosas*. Planeta. Barcelona.**

LIBURUAREN LABURPENA ETA HONEN INGURUKO KOMENTARIOAK  
(eztabaidak, atera diren ideiak nagusiak...)

Liburu osoa analisatu beharrenean, lehenengo atala baino ez dugu gomendatzen, hau da “*Las meninas*” deritzona. Izenburuak adierazten digun legez, Velazquezen margoa analisatzen du Foucoultrek 13 eta 25 orrialde bitartean.

Benetan oso interesgarria gertatuko zaiola artea interesatzen zaionari. Baita edonori ere, hain ezaguna denez, ziurrunik denok noizpait ikusi baitugu eta denok honen ideia edo aurreritziak baititugu.

Foucoultrek garatzen dituen ideia nagusiak ondoko hauek izan litezke:

- Ikusgaitasuna/ikusezintasuna.
- Espazioa. Foucoultrek dio dena bere burlaren islapena dela: zein da eredia eta zein errealitatea?, galdetzen du.
- Artifizioa. “*Las meninas*” artelanean gauza zehatz batzuk argitzen dituen argia, margoaren markoa edo bastidores, pintzelak, izpilua, etab., alegia.
- Irudikapena irudikapen soila da, erabateko hustasuna.

## LIBURUAREN DATUAK

**BENJAMIN, Walter: “La obra de arte en la época de la reproductibilidad técnica”, “Discursos interrumpidos” liburuan, I. bolumena. Taurus. 17-57. or.**

LIBURUAREN LABURPENA ETA HONEN INGURUKO KOMENTARIOAK  
(eztabaidak, atera diren ideiak nagusiak...)

Lan honetan egileak gaurko arteari buruzko gogoeta interesgarria eskaintzen du. Alde batetik, artesana kokatzen du egin den garaian, ezin baita ulertu egungo gizartean kokatzen ez bada. Ildo horretatik, artearen inguruan XX. mendean zehar suertatu diren aldaketak analisatzen ditu.

XIX. mendeko amaierara arte artelanak zeukan ezaugarri nagusienetakoa benetakotasuna edo autentizitatea zen. Kopiek garrantzia galtzen zuten erabat. Kopia egiteko aukerak eta argazkilaritzaren hedapenak, besteaz beste, apurtzen dute artea zeukan aura, bakuntasuna eta, neurri handi batean, berari gordetzen citación gurtzapena edo kultura. Argazkilaritza eta zinemaren asmakizunarekin artelanak berregin eta errepika daitezke. Eta honek artelana lehen zeukan erritualeko izaera bizkarroikorretik askatu egiten du. Argazkilaritzak suposatzen du balore erakusgarriaren garapena kultuarenaren gainera (erretratuaren kasuan izan ezik). Hori gertatzerakoan, artista eta ikuslearen arteko harreman berriak zabaltzen dira (“*arteak ihes egin du ederraren halotik*”, dio Benjaminek).

Artea merkantzia bezala aurkezten da. Publikoa merkatua da. Eta lehen arteak zeukan aura, izar bihurtutako artisteekiko kultura ordezkatzen du.

Egileak errepikatzen du Aldous Huxleyren ondoko esaldi hau: “*Aurrerapen teknikoek artea bulgarizaziora eramán dute*” (Huxleyren iaotasun artistikori buruzko teoria). Benjaminek baieztatzen du artealana errepikatzei aukera teknikoek artearen eta jendearen arteko harremanak eraldatu dituela. Izatez, zinemak masifikazioa ekarri du. Hala ere, aldaketak ez dira bapatekoak izan eta guztiek ez dituzte era berean onartu. Bestela, nola uler daiteke arte konbentzionala onartua izatea eta, alderantziz, arte-adierazpen berriak hain zorrotz kritikatzeko direla.

Interesa:

Bada egungo artea, merkataritza eta ezaugarri estetikoak eta kontsumoa ulertzeko eta erlazionatzeko. Azken batean, arteak duen edukin ideologikoa nabarmentzen da idazki honetan eta interpretatzeko ditugun ikuspegi atzerakoiak ala aurrerakoiak azalaratzen ditu.

## LIBURUAREN DATUAK

**ECO, U. (1965), Apocalípticos e integrados, Barcelona, Lumen-Tusquets, 2001.**

## LIBURUAREN LABURPENA

Liburu honetan kulturak azkeneko urteetan hartutako bideak atertzen dira (kontuan izanik liburua 1965an argitaratu zela, nahiz eta lau biderrez berriro publikatu), hau da: komunikabideak, telebista batez ere, komikiak, mito modernoak (Superman), abesti modernoak, etab. Eta gai hauek bi ikuspuntu harturik miatzen dira: apokaliptikoena, hau da, kontrakulturantz abiatzen garena diotenen aburutik; eta integratuena, edo kulturaren zabalkuntza edo demokratizazioaz hitz egiten dutenena. Batzuentzat, beraz, kulturak okertu egin da eta bigarrenentzat alderantziz.

Liburuaren atalak:

- Liburuaren aurkezpena.
- Apocalípticos e integrados.
- Introducción.
- Alto medio, bajo.
- Los personajes.
- Los sonidos y las imágenes.

Gure saiorako, “Alto, medio, bajo” atalean zentratu egin gara, “Cultura de masas y niveles de cultura” azpi atalean hain zuzen. Bertan “cultura de masas” delakoari buruz mintzatzen da autorea, alde eta kontra daukana azpimarratuz, planteamendu honek dauzkan arazoak komentatzen.

Atal honen laburpena:

Kulturaren aldaketaren aurrean arazoak sortu dira beti (adibidez Guttengergek ekarritako berrikntzarekin) eta masen kulturarekin berdin gertatzen da. Autoreak komentatzen ditu kontra eta alde dauden posizioak. Kontra daudenek kultura hau homogenizatorantz eta “gustuko” gauzak aukeratzera doala diote; honetaz gain, kultura honen ezaugarriak honako hauexek izan daitezkeen: kontserbadorea da, ahalegin gutxi eskatzen du, entretenitzeko produktuak baloratzen ditu, ikuspegi kritika gabeko eta azalekoak ditu, konformatzaile eta paternalista da...

Alde daudenek, ordea, horrelako abantailak ikusten dizkio: ez da ematen sistema kapitalistetan, formazioa eskaintzen du informazioaren bitartez, obra kulturalen zabalkuntza baimentzen du, ez dira kontserbadoerak, etab.

Autoreak arazoa gaizki planteatuta dagoela dio, benetako galdera hau izan beharko zen: zein izango zen balore kulturalak transmititu dezakeen masako kultura?

Aurrerantzean kultur mailak aztertzen ditu (high, middle eta low), esanez maila hauek ez dute zergatik izan behar zailtasun edo gizarte mailakoak izan behar.

Amaitzeko balizko ikerketak planteatzen ditu gai honi buruz: mass mediako hizkuntza eta baliabide formalak, telebista, nobela beltzak eta zientzia-fikziozkoak, gozamen estetikoaren ikerketa estetiko eta soziologikoak...

LIBURUAREN INGURUKO KOMENTARIOAK (eztabaidak, atera diren ideia nagusiak...)

Interesgarria.

AUTOREARI LOTUTAKO BESTE TESTU BATZUK:

Tratado de semiótica general (1985), Barcelona, Lumen, 1977.

Lector in fabula (1979), Barcelona, Lumen, 1981.

Etc.

## BIBLIOGRAFIA

FREIRE, P. (1992). *Pedagogía de la esperanza*. Barcelona: Paidós.

FREIRE, P. (1997). *A la sombra de este árbol*. Barcelona: El Roure.

CASTELLS, M. (1997-1998). *La era de la información. Economía, Sociedad y Cultura*. Vols. I, (*La Sociedad red*), Vol II (*El poder de la identidad*) y III (*El fin del Milenio*). Madrid: Alianza.

HABERMAS, J (1987-1989). *Teoría de la Acción Comunicativa*. Vol I: Racionalidad de la acción y racionalidad social y Vol.II: Crítica de la razón funcionalista. Madrid: Taurus.

HABERMAS, J. (1994, 2ª edición): *Teoría de la acción comunicativa. Complementos y estudios previos*. Madrid: Cátedra.

FLECHA, R. (1997). *Compartiendo palabras. El aprendizaje de las personas adultas a través del diálogo*. Barcelona: Paidós.

PUGVERT i MALLART, L. (1999): "Aprendizaje dialógico", en I Jornadas Educativas en el Parc Científic de Barcelona: *Cambio educativo. Teorías y prácticas que superan las desigualdades*. Noviembre. Barcelona.

VARGAS, J. Y FLECHA, R. (2000): "El aprendizaje dialógico como "experto" en resolución de conflictos", en *Contextos Educativos*, vol 3, pp. 81-88. Logroño: Universidad de la Rioja.

ALONSO, M.J. y LOZA, M. (2000): "El aprendizaje dialógico", en I Jornadas sobre Educación para la superación de desigualdades. Organizadas por Gobierno Vasco, Universidad del País Vasco y Ayuntamiento de Bilbao, febrero, Bilbao.

TOURAINÉ, A. (1997). *¿Podremos vivir juntos? Iguales y diferentes*. Madrid: PPC.

BECK, U.(1997): *La sociedad del riesgo: Hacia una nueva modernidad*. Barcelona: Paidós.

BECK, U; GIDDENS, A y LASH, S. (1997): *Modernización reflexiva. Política, tradición y estética en el orden social moderno*. Madrid: Alianza Universidad.

*Comunicar y transformar*, Barcelona: GRAO.

CASTELLS, M. ; FLECHA, R. ; FREIRE, P. ; GIROUX, H. ; MACEDO, D. ; WILLIS, P. (1994) . *Nuevas perspectivas críticas en educación*. Barcelona: Paidós.

FLECHA, R; GÓMEZ, J y PUIGVERT, L (2001) *Teoría sociológica contemporánea*, Barcelona: Paidós.

COMER, J. (1993). *School Power: implication of an intervention project*". 2ª ed. Simon and Shuster, New York.

LEVIN, H.M. (1987). "New school for the disadvantaged" en *Teacher Education Quarterly*. Vol 14, nº 4.

LEVIN, H.M. (1995): "Aprendiendo en las escuelas aceleradoras", en VV.AA.: *Volver a pensar la educación. Prácticas y discursos educativos*. (Congreso Internacional de Didáctica), 2 vols. Madrid/La Coruña: Morata/Fundación Paideia, pp. 80-96.

SLAVIN, R.E. (1997). "Educational Psychology. Theory into practice". 5ª ed. Prentice-Hall. Englewood Cliffs, NJ. AAVV. (1998). "Comunidades de Aprendizaje: propuesta educativa igualitaria en la sociedad de la información", en *Aula de Innovación educativa*, Nº 72. Barcelona. Grao. Pp. 49-59.

AAVV. (1998). "Comunidades de aprendizaje: la sociedad de la información para todos, en *Contextos*, Vol 1, pp 53-75. Logroño: Universidad de la Rioja.

FLECHA, R y PUIGVERT, L. (2002). Las Comunidades de aprendizaje: una apuesta por la igualdad educativa, en *REXE, Revista de estudios y experiencias educativas*. Vol 1, nº 1. <http://www.uscs.cl/rexe>

FLECHA GARCÍA, R. "Las Comunidades de Aprendizaje como expertas en resolución de conflictos". [http:// www.mec.es/cesces](http://www.mec.es/cesces)

JAUSSI, M. (2000). *Comunidades de aprendizaje*. I Jornadas sobre Educación para la superación de desigualdades. Bilbao. <http://sarenet.net/dgaindituz>

LUNA, F y JAUSSI, M.L. (1998) *C.P. Ramón Bajo de Vitoria- Gasteiz: una comunidad de aprendizaje*. Cuadernos de Pedagogía, nº 270.

AAVV. (2002). *Comunidades de aprendizaje en el País Vasco*. Publicaciones del Gobierno Vasco. (EN PRENSA).

AAVV. (SETIEMBRE, 2002). Cuadernos de Pedagogía (en prensa)

## **2. ERANSKINA: PRENTSA ARTIKULOAK**

Liburuaz gain, mintegiko lanaren barruan eta, halaber, gizartezko testuingurua kotuan hartuz, ikasturte honetan zehar zenbait prentsa-artikulu bildu eta landu dira.

Ondoko orrialdeetan biltzen ditugu, prentsan argitaratu diren moduan, hau da, bere osotasunean. Kasu guztietan egilea eta iturria aipatzen da, baina ez zaie gehitu analisirik edo adierazpenik.

Aukeratzekoan saiatu gara irizpide batzuei jarraitzea: hezkuntzarekin erlazio zuzena izatea, gaurkotasuna landu arren interesa izatea eta autoprestakuntzarako balioa. Bigarren ideari dagokionez, New Yorken 2002ko irailaren 11an gertatutako atentatua ondoren prentsan sortu zen zibilizazio desberdinen arteko ustezko borrokari buruzko eztabaida lantzen ziren zenbait artikulu ere bildu dira.

## *La caída de la socialdemocracia*

ALAIN TOURAINE

---

Alain Touraine es sociólogo, director del Instituto de Estudios Superiores de París.

---

En los primeros minutos ganó la vergüenza, después el pánico ante el fracaso imprevisto, imprevisible, de Lionel Jospin, del Partido Socialista y, enseguida nos dimos cuenta, medio siglo de socialismo democrático en toda Europa. Dentro de unos días Chirac habrá obtenido una amplia victoria -esperemos que sea lo más amplia posible- sobre Le Pen, que está desesperado de ver que es candidato a la presidencia, pero que no puede subir los últimos peldaños que le separan -felizmente para siempre- del poder. Pero la derrota del PS no se curará en pocos días; es más, es de desear que no le den una mano de pintura demasiado rápida y que ese partido pueda elegir con más reflexión su futuro. Evidentemente, el PS, dirigido por Holande, va a preparar las elecciones legislativas, cuyo resultado puede ser una victoria aplastante de Chirac tras su elección como presidente, o la confusión creada por demasiadas elecciones triangulares.

¿Cómo explicar esta derrota? La situación francesa no era mala, a pesar de algún indicador económico inquietante; Lionel Jospin tenía una larga experiencia de poder y su moralidad estaba por encima de toda sospecha; el paro, a pesar de un cierto aumento reciente, era muy inferior a cuando Jospin llegó al poder. La vida de los franceses estaba acompañada de huelgas de los servicios públicos, pero todo el mundo estaba acostumbrado. Los ataques de la derecha y de la extrema derecha contra los inmigrantes, cuya mayoría, por otra parte, ha nacido en Francia, eran menos virulentos, lo mismo que las denuncias contra los extranjeros, muchos de los cuales, por otra parte, habían adquirido la nacionalidad francesa. Francia no había vivido, como Alemania, la llegada masiva de refugiados del este y del sureste europeo. Incluso se hablaba menos de Le Pen que antes, sobre todo desde que Megret, su antiguo adjunto, se había convertido en su enemigo. ¿Cómo, pues, explicar el resultado delirante de las elecciones?

